

FUNTSEZKO BAZKIDEAK

Gure plataforma burutzeko, ez gara bakarrik egongo. Bazkide batzuk izango ditugu aurrera eramateko gure aplikazioa. Momentuz, bost bazkide izango ditugu: Platanomelón, Diversual Shop, Play Store, sexologia eta influencerrak.

Plátanomelón eta Diversual Shop dendei dagokionez, gure aplikazioan beraien produktuak gomendatuko ditugunez, zerbait ordainduko digute.



Gure aplikazioa, Play Store-n egongo da eskuragarri pertsona guztientzako. Dohainik izango da.

Gure aplikazioaren parte sexologia izango da. Bilera pribatu bat nahi izanez gero (informazio gehiago eskuratzeko) sexologoarekin hitz egingo du pertsoina horrek, jakinduria handiago eta egokiago baitu.



Azkenik, gaur egun hain boteretsuak diren sare sozialak erabiliko ditugu gure aplikazioa hedatzeko. Horretarako, influencer batzuekin jarriko gara kontaktuan gure aplikazioa hazten den bitartean. Gure aplikazioari buruz hitz egin beharko dute beraien erabiltzaileetan (Instagram, Twitter, Youtube, Facebook...)

